



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

145. INFORMAZIO BULETINA

> 2019ko ekaina



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskadiko EGEF 2014-2020 Programaren 7. Jarraipen Batzordean parte hartu du**

2014-2020rako EGEF Programak bere 7. Jarraipen Batzordean 2019ko Programa Operatiboaren emaitzen ebaluazioa aurkeztu du.

Ekainaren 26an, Bilbon, 2014-2020rako Euskadiko EGEF Programa Operatiboaren zazpigarren Jarraipen Batzordea izan da; aldi osorako 358,2 milioi euro bideratu dira. Programa operatiboa, gainerako programa operatiboekin batera -LGENF (nekazaritza), FEMP (arrantza) eta EGIF-, EBk Europako estatu kideei eta eskualdeei jarduketa komunitarioko zenbait arlotan laguntzeko bidea da.

Eskualde Garapenerako Europako Funtzaren (EGEF) laguntza komunitarioa aipaturako zenbatekoaren % 50 da. 2018/12/31n guztira 1.895 eragiketa hautatu dira, eta horien zenbateko egiaztatua 76,7 M€-koa da, alegia, gastu publikoaren esleipenaren % 21,4.

Zatirik handiena ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek garatzen duten enpresa-arloko I+G+b jardueraren inbertsioa bultzatzeko programen bidez.

Beste lan-ildoetako bat honako honetan zentratzen da: sektore guztietan karbono gutxiko ekonomiara igarotzeko bide ematea. Halaber, programaturako lehentasunen artean honako helburu hauek dituzten ekintzak daude: IKTen sarbidea, erabilera eta kalitatea hobetzea, ETEen lehiakortasuna hobetzea, klima-aldaketarekiko egokitzapena sustatzea eta ingurumena kontserbatzea eta babestea eta baliabideen erabileran eraginkortasuna bultzatzea.

Programazio-aldiaren erdialdean, tarteko lau erakundeetarako (Eusko Jaurlaritza eta hiru aldundiak) programaren finantza-aurrerapenak bilakaera egokia du.

Jarraipen Batzordean Programa Operatiboaren orain arteko Helburuen/Emaitzen Ebaluazioa aurkeztu da, 2018ko urterokoaren aurrerapena garatu da; horrela, Programa Operatiboan parte hartzen duten administrazio publikoek egin beharreko programak eta ekintzak jaso dira.



> 2019ko ekaina

Ebaluazioa kanpo-ebaluatzaileek egin dute, eta ondorioztatu dute programak osasun ona duela eta egun arte ezarritako helburu guztiak bete direla. Etorkizunean, programaren finantza-bilakaeraren segimendua egin beharko da, bai eta hautatutako adierazleren batena ere, hala badagokio dagokion aldaketa proposatzeko.

Azkenik, "Eragiketak Hautatzeko Irizpide eta Prozedurak" dokumentuaren bertsio berria eta "Programarako Komunikazio Estrategia"ren bertsio berria onesteko aurkeztu dira.

Jarraipen Batzordeko buruak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza eta Ogasun Ministerioko Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusia dira. Halaber, Batzorde horretan parte hartzen du Europako Batzordeko Regio Zuzendaritza Nagusiaren ordezkariak.

[\(informazio +\)](#)



> LIFE LEMA proiektuak itsas zabor 28 tona bildu ditu gure kostan

LIFE LEMA proiektuak Bizkaiko Golkoan flotatzen dabilen zaborra aurreikusteko eta antzemateko sistemaren doitzea amaitu du, eta horrek etorkizunean kudeaketa eta garbitasuna modu eraginkorrean kudeatzeko aukera emango du.

José Ignacio Asensio: "LIFE LEMA proiektuak itsasoko plastikoen kudeaketa hobetuko du eta Gipuzkoako herritarrak arazo honen aurrean sentsibilizatzea posible egin du".

Gipuzkoako Foru Aldundiak burutzen duen egitasmo honek 2.160.000 euroko aurrekontua izan du (%60 LIFE programaren Europako funtsak eman dute) eta AZTIren, Biarritzeko Udalaren eta Surfrider Europe Foundationen parte-hartzea izan du.

Hiru urteko garapenaren ondoren, LIFE LEMA itsasoko zaborra biltzeko proiektua azken fasean aurkitzen da. Ekainaren 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Departamentuak burututako jardunaldian, lortutako emaitzen eta Bizkaiko Golkoko hego ekialdeko itsas zaborraren egoeraren berri eman da. Programak jarraipena izango du After LIFE egitasmoaren bitartez, etorkizunari begira, Gipuzkoan garatu beharreko eredu eta estrategiarik eraginkorrenei buruzko gogoeta lerro bat zabalduko da.

LIFE LEMA proiektuaren honen xede nagusia izan da itsasoko zaborra detektatzeko eta biltzeko sistema bideragarri bat lortzea, eta horretan tokiko agintari eta komunitateak inplikatzeko. Ekimenaren eremua Deba eta Adour ibaien artean dagoen Bizkaiko Golkoko zatia izan da, hau da, Gipuzkoako eta Lapurdiko itsas eta kostaldeko zonaldea, eta 3 urteko iraupena izan du.

(informazio +)



KOHESIO POLITIKA

> **Connect Innovation Bai proiektua 2019ko RegioStars Europako sarien finalista, Pirinioetako Lan Komunitateak bultzatuta**

Connect Innovation Bai ekintzaitza berritzaileari eta sortzaileari buruzko proiektua, Agencia de Desarrollo del Bidasoa, S.A. (Bidasoa Activa / Bidasoa Bizirik) agentzia buru dela, RegioStars 2019 Europako sarien lau proiektu finalistetako bat da, epaimahaiaren sariaren "Eraldaketa digitala sustatzen" kategorian; Europako Batzordeak antolatzen ditu. Kategoria horretan jarduera, prozesu, eskumen eta negozio- eta gobernu-ereduetan eraldaketa digitala sustatzen duten ekimenek parte hartzen dute. Proiektua Pirinioetako Lan Komunitateak bultzatu du; bertan dago Euskadi.

Aurtengo ediziora, guztira, Europako 199 proiektu aurkeztu dira; horietatik, lau POCTEFA 2014-2020 programakoak dira. Haren helburua da agente sozioekonomiko frantziarrek, espainiarrek eta mugaz haraindiko gunean dauden andoratarrek eginiko lankidetzak proiektuak sustatu eta kofinantzatzea.

Connect Innovation Bairen helburua da proiektuaren lurraldeko enpresek 4. industria-iraultzarekin bat egitea, ekintzaitza berritzailearen kultura sortzeko, non biztanleak, gainera, prozesuaren partaide baitira.

Bidasoa Bizirik proiektu finalista horren sustatzaile nagusia da, bai eta hautagaitza prestatzeko eta aurkezteko arduraduna ere. Beste bazkideak honako hauek dira: Communauté d'Agglomération Pays Basque, Irungo Udala, Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien elkarte, ESTIA ECOLE INGENIEURS eta MU ENPRESAGINTZA S.COOP.

Epaimahaiak gainera, proiektua publikoak bozka dezake, honako esteka honen bidez: <https://bit.ly/2Jo5Fy0>

(informazio +)



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> CAFek gidaririk gabeko trenak hornituko dizkio Londres

Konpainiak 43 tren diseinatu, fabrikatu eta hornituko ditu guztira britainiar hiriburuaren ekialdeko eremua estaltzen duen DLR linearako. Ibilgailu berri hauek herritarrei ere zerbitzua emango diete 2023. urtean

CAF euskal tren-fabrikatzaileak gidaririk gabeko 43 tren diseinatu, fabrikatu eta hornitzeko kontratuaren esleipena lortu berri du Londresen ekialdeko eremua estali eta Transport for London (TfL) konpainiak kudeatzen duen DLR linearako .

Unitate hauek 5na ibilgailuk osatzen dute, eta 2023an bidaiarientzako zerbitzua ematen hasiko direla aurreikusi da. Akordioak laguntza teknikoa eta flotarako ordezkio piezen horniketa ere barne hartzen ditu.

(informazio +)



> CIDETEC baterien diseinua eta fabrikazioa koordinatzen ari da europar proiektu batean

Euskal zentro teknologikoak, "Manufacturing & Cell Design" lan taldea koordinatzeko ardura izango du.

CIDETEC zentro teknologiko donostiarrek, biltegitratze energetikoaren alorrean berrikuntza eta ikerkuntza sustatzeko xedea duen, eta Europar Batzordeak bultzatutako Batteries Europe egitasmoaren testuinguruan, bateriak diseinatu eta fabrikatzeko Europa mailako lan taldea koordinatuko du.

Gauzak honela, "Manufacturing & Cell Design" deituriko saileko koordinazio lanak bere gain hartuko ditu zentroak. Sailak, entitateak komunikatu batean adierazten duenez, europar estrategiaren funtsezko ardatz gisa jarri dute.

[\(+ información\)](#)



> **SPRI eta CDTI-k “Europako Berrikuntza Kontseilua” (EIC) programa pilotuaren laguntzak eskuratzeko informazioa eman dute, Smiley Owl Donostiako enpresarena bezalako adibideekin batera.**

“Berrikuntzako programa pilotu berriarekin (EIC) Europako Batzordeak berritzaileei lagundu nahi die, ideia sortzen den unetik merkatura zabaldu arte”, dio CDTIko Luis Guerrak.

Ebaluatzaileek “20 enpresa ikusiko dituzte astebetean eta, beraz, garrantzitsua da arrastoa uztea, zuetaz oroitu daitezten, eta ez dezazuela ahaztu ongi justifikatzea zergatik merezi duzuen laguntza publikoa.

Basque Enterprise Europe Network partzuergoak (non integratuta dauden enpresen garapenerako euskal agentzia, SPRI Taldea, Innobasque eta Beaz) eta CDTIk antolatutako jardunaldi batean aurkeztu dira Europako Berrikuntza Kontseilua (EIC) –Europar Batasunaren instrumentu berria, berrikuntza arloko laguntza guztiak erakunde batean biltzeko– eta bere programetako berritasunak (Pathfinder eta Accelerator). Uste da 1.000 bat proiektu babestuko direla hemendik eta 2020ra arte.

“Berrikuntzako programa pilotu berriarekin (EIC) Europako Batzordeak berritzaileei lagundu nahi die ideia sortzen den unetik merkatura zabaldu arte. Bilatu nahi dira I+G handiko teknologiak, merkatura iristeko inbertsio handia behar dutenak, eta garatzeko potentziala duten arrisku handiko proiektuak”, adierazi du Estatuko CDTI berrikuntza agentziako Luis Guerrak.

Eusko Jaurlaritzako Teknologia eta Estrategia zuzendari Iosu Madariagak eman dio hasiera jardunaldiari, gogora ekarriz 2014tik hona euskal enpresek 507 milioi euroko laguntzak lortu dituztela Horizontea 2020 programatik, hots, ikerketa eta berrikuntza bultzatzeko Europako programa publiko handienetik (80.000 euroko aurrekontua du).

Madariagak azpimarratu du parte hartu behar dela Europako I+G+B programetan, “ez bakarrik funtsak lortzeko, baina baita ere beste enpresa batzuekin lankidetzak sortzeko”. Euskal enpresak animatu ditu horrelako laguntza deialdietan parte hartzera.

Smiley Owl Donostiako enpresak adibide bat azaldu zuen. Bertakoa den Ricardo Veak, SPRIren artikulua gatzelerazko bertsioan ikus daitekeen aurkezpen bate egin zuen, eta azpimarratu zuen “laugarren saiakeran” lortu zutela laguntza, eta bat etorri da esatean zenbakiek ongi landuta egon behar dutela eta “lantaldea funtsezkoa dela”.

(informazio +)



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- > **Europaren etorkizunaren inguruko eztabaidak Europako Legebiltzarrean (2018-2019)**

(informazio +)

- > **Emakumeen eskubideei eta feminismoari buruzko teorien garapena Europan**

(informazio +)

- > **Emakumeen izaerarentzako sustapen programak Europako Legebiltzarrean**

(informazio +)



EUROPAKO DEIALDIAK

> EIAF Europako Itsas eta Arrantza Funtsa.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan oinarrituak dauden ontzien arrantza jardueraren behin behineko geldialdiagatik laguntzak (Ipar mendebaldeko Kantabriko arte xeheen zentsuko artisau-arrantzaleen gaineko geldialdi biologikoa).

(+ información)

> Europako Gizarte Funtsa (EGF).

2019-2021 dirulaguntza deialdia. Euskal Autonomia Erkidegoko enplegurik gabeko pertsona gazteen gizarte eta lanbide aktibaziorako prestakuntza ekintzetarako.

(+ información)



> **Pilotu: BT&I-ren programa (SPRI Taldea)**

SPRI Taldeko Euskadiko Nazioartekotze Agentziaren (Basque Trade & Investment-en) Pilotu Programa. Nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuetarako euskal ETEen partaidetza sustatzeko dirulaguntza deialdia.

(+ información)

> **ERA-NET BiodivClim + AEI**

Nazioarteko proiektuen deialdiaren aurre-jakinarazpena. ERA-NET BiodivClim markua. ERA-NET ekimenaren ingurumen atala. Nazioarteko elkarlana bereziki sustatzen dituzten deialdietarako gainontzeko finantzaketa eskaintzen duten I+G estrategikoko arloko europar dirulaguntzak. Estatuko ikerketa agentziaren (AEI-ren) partaidetzarekin.

(+ información)

"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea